

Legazpiko Agenda 21eko Foroa

2013ko maiatzaren 16ko tailerraren akta

Legazpiko udaletxean, 18:30etik 20:15era



Biodibertsitatea Legazpin:

**Aurten zer landu dute ikastetxeetan? Emaizak eta
erronkak**

Zein da Udalaren lan ildoak? Oraina eta gertuko etorkizuna

Horiek izan dira gaurko tailerreko galderak. Hauek etorri dira:

Floren Gutiérrez – Manuel Fernández (Nagusilan) – Mari Cruz Lizarazu – Iñaki Mauleon (Domingo Agirre eskola) – Eurne Huesa (Legazpiko Ingurugela) – Montse Vallejo – Feli Núñez – Koro Zabaleta (Olazabal institutua) – Maite Odriozola (Haztegi ikastola) – Pilar Makibar – Xabier Baztarrika (Buskabaso) – Itsaso Guridi (Haztegi ikastolako ikaslea) – Ane Cano (Haztegi ikastolako ikaslea) – Judith Velasco (Olazabal institutuko ikaslea) – Alba Rodriguez (Olazabal institutuko ikaslea) – Igor Urrate (Legazpiko Udaleko zinegotzia) – Inma Hernandez (Legazpiko Udaleko Agenda 21eko eta garapeneko teknikaria) – Iciar eta Zorione (Prometea)

Eskerrik asko gure deia erantzun diozuelako eta gogoz aritu zaretelako, biodibertsitatearen alde!

- Biodibertsitatea Legazpin

Izenburu horrekin, tailerrean bi norabide ezarri ditugu:

Aurten zer landu dute ikastetxeetan? Emaizak eta erronkak

Zein da Udalaren lan ildoak? Oraina eta gertuko etorkizuna

Zehatzago, jarraian.

Ikastetxeak: aurten Eskola Agenda 21ean egindako lana

Urtero legez, ikasturte honetan Legazpiko ikastetxeek gai bat landu dute Eskola Agenda 21aren barruan: **biodibertsitatea Legazpin**. Horrezaz gain, aurreko urteetan landutako gai batzuen jarraipena egin dute, hala nola, hondakinak edo energia.

Horregatik, gaurko tailerrean herriko ikasleek landu duten gaiaren berri jaso nahi izan dugu.

Eta horretarako etorri dira gaurkoan **Itsaso, Ane, Judith eta Alba**, Haztegi ikastolako eta Olazabal institutuko ikasleak, Legazpiko ikasle guztien izenean.

Mila, mila esker egin duzuen lana hain ondo azaldu diguzuelako!



Biodibertsitatea Legazpin, ikasleen ikuspegitik

Legazpiko Ingurugelaren laguntzarekin, maila bakoitzeko ikasleek (lehen maila, bigarren maila eta batxilergoa) udalerriko **biodibertsitatearekin zerikusia duten alderdiak aztertu dituzte**: biodibertsitatearen kontzeptua bera, baliabide naturalak, Legazpiko paisaiaren irakurketa, espezie inbaditzaileak eta exotikoak, desagertzeko arriskuan dauden espezieen arazoa, gure habitaten bilakaera...



- Eta oro har, hau adostu dute:

Bete ditzaketen konpromiso batzuk betetzea, biodibertsitatea zaintzeko konpromisoa duten aldetik.

Ikasleen konpromisoak biodibertsitatearen alde

- Natura zaintzeko konpromisoa hartzen dugu; ez dugu zaborra lurrera botako eta hondakinak bakoitza dagokion paperontzian utziko dugu.
- Landareak eta zuhaitzak zainduko ditugu, irteerak egingo ditugunean eta kalean gaudenean (adibidez, ez ditugu zuhaitzetako hostoak eta adarrak kenduko, ez dugu enborra botako,...).
- Udalerrian kutsadura murrizteko, bizikletan, patinetean edo oinez ibiliko gara eta adinekoak garraio publikoa (Junetorri) erabiltzera edo bizikletan edo oinez ibiltzera animatuko ditugu.
- Ez ditugu kanpoko espezieak animalia-lagun gisa edo apaingarri gisa edukiko eta, baldin baditugu, nahi ez dugunean edo haietaz arduratuko ez bagara, leku egoki batera eramango dugu (animalia denda, animaliak babesteko elkarteak,...); ez dugu edozein lekutan landatuko eta ez ditugu aske utziko.
- Babestutako espezien gaineko informazioa zabalduko dugu, jendeak kontzientzia har dezan.
- Geratzen zaigun landa-eremua zaintzeko asmoarekin, garaiko eta bertako produktuak kontsumituko ditugu.

Eta Legazpiko **Udalari bidali dizkioten lehentasunezko proposamen batzuk**, hark balora ditzan eta aurrera eraman ditzan.

Ikasleek Udalari egindako lehentasunezko proposamenak

- Telleriarteko errekan eta herriko iturburuetan amuarrainak askatzea, gure ibaietako biodibertsitatea zabaltzeko eta hobetzeko.
- Mirandaola-Brinkola ingurunean igerileku naturalak sortzea ibaietan eta egoteko lekuak.
- Baratzak dituztenei garaiko produktuei buruzko informazioa zabaltzea, haien biodibertsitatea bermatuta gera dadin.

Jasota geratzen da!





Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



- Azkeneko hausnarketa: **nola zabal dezakegu** ikasleen egin duten **lan bikaina legazpiarren artean?**

Adibidez, Foroak oso ondo baloratu du **landare exotikoen eta inbaditzaileen** gainean egin den lana. Eta nola zabal daitekeenari dagokionez, hona hemen aukera batzuk:

Proposmen berriak!

- Plan bat egitea, Legazpin dauden landare inbaditzaileen jarraipena egiteko eta haiek kentzeko.
Garai egokia izan daiteke, oraindik asko ez daudelako eta haien zabalkundea geldiaraz daitekeelako. Udalak egin dezake plan hori lorazaintzako zerbitzuarekin eta Aranzadi elkartearekin adibidez. Gainera, horrelako eremuan dagoeneko lan egin dute Goiekik edo Eusko Jaurlaritzak.
- Udalerriko berdeguneetan espezie inbaditzaileak landatzeko debekua jasotzea (gaur egun hori betetzen da dagoeneko) eta horren berri herritarrei ematea.
- Landare exotikoak eta inbaditzaileak ezagutzera ematea, horretarako batxilergoko ikasleen egin dituzten fitxak aprobetxatuz. Adibidez:
 - Erakusketa bat egin daiteke landare mota horiekin (onddoekin egiten denaren antzera), haziak, lurra, zabaldu gabe.
 - Hitzaldiak antola daitezke gaiari buruz.
 - Fitxekin panel informatiboak jar daitezke (ibai ertzetan...).
 - Irteerak antola daitezke landare inbaditzaileak dauden lekuetara, bertatik bertara ikusteko.
 - Dagoen informazioa Udalaren Web orrian jar daiteke.
 - Landare inbaditzaileak bildu daitezke eta plazan erakutsi.

Datorren 2013-2014 ikasturtean ikastetxeetan biodibertsitatea lantzen jarraituko denez, kontu honi buelta batzuk emango dizkiotela adostu dugu. Eskerrik asko erronkari eutsi diozuelako!

Legazpiko Udala: lan ildo nagusiak

Ikastetxeetako ikuspegia eta lana partekatu ondoren, Legazpiko Udalean jarri dugu arreta: zer egiten du biodibertsitateari dagokionez?

Inma Hernandez, Udaleko teknikariak taldearekin partekatu du lehenengo inpresioa:

Landu beharreko gaia dela esan dezakegu; zaila da Udalean gai hori sustatzea.



Arrazoiak? Askok: Udal lur eskasa, aurrekontu gutxi...

Zehaztasun adierazgarria: azkeneko hauteskundeetan biodibertsitatea hobetzea ez da alderdi politikoek euren programatan sartu duten gaia.

Eta, hala ere, lehentasunezko gaia da iraunkortasunerako.





Legazpiko Agenda 21 de Legazpi

Guztion parte hartzearekin, iraunkortasunaren bidean



Eta hori esanda, segidan zehatz mehatz azaldu du Udalaren lan ildoak gai horretan. Hauek dira:

Biodibertsitatea lantzeko Legazpiko Udalaren egungo eta etorkizuneko lan ildo nagusiak

- Basoaren kudeaketa iraunkorra PEFC
Udalak, ziurtagiri horrekin, udal basoak modu iraunkorrean kudeatzen dituela egiaztatzen du. Adibidez, eta zehaztutako planifikazioa jarraituz, laster pinuen bakanketa arduratsua egingo du Lakiolan.
- Aizkorri-Aratz parke naturala
Udalak Parke naturala kudeatzen duen organoak hartzen du parte. Parkeak fauna eta flora babesteko eta hobetzeko programa bat du eta, zehazki, zuhaitz motzak babesteko proiektua du.
- Ingurunearen Inbentarioaren emaitzak
Udalak bere egunean Aranzadi elkarteak egin zuen Inbentarioaren emaitzak zabaldu egin behar direla uste du. Lan horretan, adibidez, udalerrian balio natural handia duten zonaldeak sartu dira, har daitezkeen babes-neurriak jaso dira,.... baina nola egin?
- Legazpiko Ondare naturala kudeatzeko plana
Egiteko dago.
- Fokatu Urola Garaia argazki lehiaketa
Aurten hamargarren edizioa izango da eta biodibertsitatea da aukeratu den gaia.
- Ibaialde
Udalak, urtero, erreka ezagutzeko irteera didaktikoak antolatzen ditu, bertako ekosistema ezagutzeko, ura analizatzeko, ...
- Biodibertsitatearen gaineko tailerrak
2013ko ekainaren 28an, biodibertsitatearen gaineko tailerrak burutuko dira udaletxearen atzealdeko plazan:
 - Olio harraskatik behera, ez!
 - Intsektuentzako onuragarriak diren landareak balkoian
 - Biodibertsitateari buruzko panela
 - Txorientzako habiak nola egin
 - Furoshiki tailerra (poltsekin lepoko zapiak egiteko teknika japoniarra)

Biodibertsitatea lantzeko Legazpiko Udalaren egungo eta etorkizuneko lan ildo nagusiak

- Erreka Eguna

Aurten 10 urte beteko ditu Erreka egunak. Eta hori ospatzeko Udalak hainbat ekintza burutuko ditu:

- Legazpin Ibaialderen erakusketa antolatuko du.
- Marrazki lehiaketa bat egingo du eta gaietako bat erreka izango da.
- Errekan panel iraunkorrak jarriko ditu. Horretarako Euskal Herriko unibertsitateko Agenda 21eko graduatu ondoko ikasle batek egin zuen lana erabiliko du.



- Baratza zure balkoian

Iratzarri etxeoandreen elkartearekin batera, hainbat saio antolatu dira: sendabelarrak, haziak, sendagai naturalak, ...

- Kontsumo taldea

Herriko produktu ekologikoak kontsumitzeko taldea sortu da. Sustatzaileekin harremanetan jarri nahi duenak hona hemen nora jo:

kontsumotaldealegazpi@gmail.com edo 665 743 990 (Aitor).

- Konpost egitea, norberak eta auzoko kideekin batera

Legazpiko 100 pertsona baino gehiago apuntatu dira konpost egiteko, norberak bere etxean edo auzoko bizilagunekin batera. Interesa duenak honako telefono zenbakira deitu dezake: 943 164875.

Informazio guztia mahai gainean jarri eta gero, taldeak debate aberatsa izan du eta biodibertsitateari arreta handiagoa eskaini behar diogula adostu da; ezinbestekoa da biodibertsitatea babestea eta balioestea. Hona hemen debatean jaso ditugun **proposamen batzuk**:

Proposamen berriak!

- Gure ondare naturala eta Inbentarioa ezagutzeko ekintzak antolatzea. Adibidez:
 - Diptiko bat edo seinaleren bat prestatzea "Aizkorrin barrena" egunean banatzeko edo jartzeko.
 - Ikastetxeetan hitzaldiak antolatzea baina kanpoko hizlariak ekarrita (ikastetxeak ez direnak).
 - Gaztetxean hitzaldi bat antolatzea: asko dira ingurunearekin kezkatuta dauden gazteak. Helburua beraiek antolatzea da, Foroaren laguntzarekin (beharrezkoa izanez gero).

Gaiak askorako eman digu eta bigarren bilera baterako ere izango genuke baina denbora aurrera doa eta bukatzeko ordua iritsi da.

• Oharrak

Akta hau Inma Hernandez teknikariak tailerraren hasieran eman dizkigun 4 oharrekin osatu dugu:



- Joan den martxoaren 14ko Foroaren tailerrean egindako eskaera-iradokizuna baloratu ondoren, Legazpiko Udalak egoki ikusten du hori eta espazio hori eskaintzeko konpromisoa hartzen du; baina uda ondoren egingo da, aurretik Udalaren Web orria berrituko da eta.



- Martxan dago "Fokatu Urola Garaia" izeneko argazki lehiaketaren X. edizioa. Aurtengo gaia: biodibertsitatea. Argazkiak aurkezteko epea maiatzaren 24an bukatzen da. Informazio gehiago: <http://www.legazpiko-udala.info/web/cas/01fichaNoticia.asp?id=549>

Aste berdea
eta
merkataritza

Ekainaren 5ean, Ingurumenaren nazioarteko eguna da eta Legazpiko Udalak Aste berdea antolatu du. Legazpiko zenbait dendarik prestakuntza jaso dute eta produktu berdeak (ingurumen inpaktu gutxikoak) eskaintzen dituztenekin kanpaina bat antolatuko da. Helburua: bizilagunak sentibilizatzea eta udalerrian eskaintza horren berri ematea. Kanpainaren barruan, ekainaren 7an, parte hartuko duten dendek kalera aterako dituzte euren produktu berdeak.

Ekainaren
6an,
hurrengo
tailerra

- Agenda 21eko Foroaren hurrengo bilera 2013ko ekainaren 6an izango da. "Oilar jokoa" da baina eguna mantentzea erabaki da.

• Berrito elkar ikusiko dugu ekainaren 6an!

Eta gaurkoz, gehiago ez!

Ezezaguna den gai batek..... askorako eman digu; eta, garbi geratu da Foroarentzako lehen tasuneko gaia dela.

Beraz, mezu horrekin agur esaten dugu eta **ekainaren 6an egingo dugun hurrengo tailerrean elkar ikusiko dugu!** Egun horretan irisgarritasun-plana nola geratu den aztertuko dugu (bere garaian Foroan landu genuen gai hori) eta Legazpiko Udala lantzen ari den industria-ondarea zaintzeko plana ezagutuko dugu.



Bitartean, udaberriaren zain geratzen gara!
Mila esker eta ondo izan!!! Nola ez, **atsegina izan da!**